

**Euskararen Bilbo**  
**Itun berri baterako proposamena**

## **AURKIBIDEA**

- I. SARRERA**
  
- II. GAUR EGUNEKO EGOERAREN EZAUGARRI NAGUSIAK**
  - 1. Euskararen gizarte bilakaera**
    - 1.1. Euskararen etorkizuna bermatzeko baldintzak**
    - 1.2. Baldintzon uztarketak ekarritako alde onak**
    - 1.3. Normalizazioan betetzen ari den botila**
  
- III. DATOZEN URTEETAKO HELDULEKUAK**
  - 1. Printzipioak**
  - 2. Abiapuntu legala**
    - 2.1. Egungo lege-markoaren deskribapena**
    - 2.2. Marko legalaren oinarriak**

*Uste dut salbazioa Bilbon dagoela. Bilbon salbatuko gara, edo ez gara salbatuko. (Ramon Saizarbitoria)*

## I. SARRERA

Esku artean daukazuen txosten honek “Euskararen Bilbo. Itun berri baterako proposamena” izenburua daroa; atal nagusi bitan egituratzen da, alde batetik, euskarak Bilbon bizi duen errealitateaz eta egoeraz jardun dugu eta, bestetik, datozen urteotan euskararen normalizazioa egingarri bihurtzeko finkatu behar ditugun printzipio nagusiei buruz aritu gara.

Zorroztasunez, jarrera eraikitzailez eta irakurketa ezkor eta etsigarriei ihes eginez garatu dugu lana.

Euskararen normalizazio prozesua konplexua da, ez da egun batetik bestera lortuko den zerbait, izan ere, lan honetan begi bat jarri diogu azken hogeita hamar urteotan ibili dugun bideari, baina beste begia etorkizunean jorratu, konpartitu eta adostu nahi ditugun ildo nagusiei.

Bide luzea egin dugu eta asko falta zaigu. Normalizazioaren ideia hori irudikatzeko “betetzen ari den botilaren” metafora erabili dugu orriotan, parte bat egin dugu baina oraindik betetzen ari zaigu euskararen egoera normalizatuaren botila.

2008an “Euskara 21” prozesua abian jarri zen, horren ondorioz sortu zen “Itun berri baterantz” izeneko txostena izan da lan honen abiapuntua, betiere Bilboko betaurrekoekin begiratuta, eta batez ere, Bilborako.

Egindakotik ikasi, egungo egoera eta indarrak kontuan hartu eta etorkizuna irabazteko helduleku sendoak zehaztu ditugu txosten honetan, oinarri-oinarrizkoak izan direnak proposatu ditugun lehentasunezko ildo nagusietarako.

Salbazioaz, gure salbazioaz, ari da Ramon Saizarbitoria txosten honen hasierako aipuan, non eta Bilbon ei dago salbatzeko gakoa. Erantzukizun handia jartzen digu idazle donostiarrak, Bilbori eta bilbotarroi, Bilboko erakundeei, publiko nahiz pribatuak, eta herritarroi. Denoi.

Denon ardura delako euskararen normalizazioa lortzea, denontzako delako hizkuntzen arteko orekak herritarren arteko bizikidetzari ematen dion hauspoa.

## II. GAUR EGUNEKO EGOERAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

### 1. Euskararen gizarte bilakaera

Koldo Mitxelenaen “Egiazko misterioa euskararen iraupena da, ez jatorria” aipuari helduko diogu irudikatzeko denboraren iragana. Gure hizkuntza sortu zenetik gaur egunera arteko iraupena azaltzeko misterioak ikertzea lan interesgarri bezain mardula izango litzateke; izan ere, sakontasun handiz jardun ez arren, beharrezkotzat jotzen dugu aipatzea azken hogeita hamar urte hauetan euskararen biziberritze prozesuan ondo egindakoak eta hobeto egin zitezkeenak, 2014. urtetik aurrera gure Bilbo honetan euskararen normalizazioa lortze aldera, norabide eta erritmo egokia jarri nahi badugu.

#### 1.1. Etorkizuna bermatzeko baldintzak

Ez dakigu zehatz-mehatz nondik eta noiztik datorren euskara, baina irauten jarraitzea nahi baldin badugu, etorkizuna bermatzeko lau baldintza nabarmendu beharrean gaude, Soziolinguistikak ematen digun aterpean babestuta.

Alde batetik, **lege-marko egoki batek** ahalbidetu egiten du hizkuntza baten normalizazio prozesua gauzatu ahal izatea. Batzuen ustez egungo marko legalak nahikotasuna dauka etorkizuneko erronkei erantzuteko; beste batzuen aburuz, aldiz, aplikazio praktikoan dago ahuleziarik handiena eta beste batzuek lege-markoa bera zalantzan jartzen dute. Argi dagoena da, eta inguruko lege-errealitateetara (Iparraldea eta Nafarroa) begiratu baino ez da egin behar horretarako, lege-marko arautzaileak eragina daukala hizkuntzaren garapenean, aspaldiko garaikoak euskararen atzerakadan eragina eduki zuen modu berean.

Beste alde batetik, **hizkuntza-politika eraginkorra** aplikatu behar da, baita **baliabideak** eta berauen erabilpen efikaza eskaini ere.

Horrez gain, **herritarren atxikimendua** ezinbestekoa da hizkuntza baten edozein biziberritze prozesuan. Euskararen kasuan gero eta aldekoagoa da, V. Inkesta Soziolinguistikoan euskararen erabilera sustatzeari buruzko galderetan ikus daitekeenez. 2011ko inkestako datuen arabera, euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraz itaunduta, EAEko biztanleen gehiengoak aldeko jarrera erakutsi zuen eta bakarrik %11,6k, berriz, aurkakoa. 1991ko inkestako datuekin erkatuz gero, datuen bilakaera positiboa antzeman dezakegu, 1991. urtean EAEko biztanle gehienak euskara sustatzearen aldekoak ziren eta hogeitaz hamar urte pasatu ondoren aldekoagoak oraindik ere, zazpi puntutan handitu da aldekoatasuna eta hiru puntutan murriztu aurkakotasuna esandako epean. Agerikoa da, hortaz, gizarteak du jarrera baikorraren posizionamendua.

Laugarren baldintza bat oso garrantzitsutzat jotzen dugu, Elkarlana. **Herri-aginteen eta euskararen inguruan biltzen den gizarte mugimenduaren arteko lankidetzari** erreparatzen diona, hain zuzen ere. Herri-aginteei normalizazio prozesuan aitzindaritzan badagokie ere, euskaren gizarte-mugimendurekin osagarritasunean eta adostasunean gertatu behar dela uste dugu; ez indar metaketa huts modura, baizik eta bakoitzari zor zaion aitortzan, funtzioen

banaketan eta konfiantzan oinarrituta lidergo konpartituaren bidetik, ahaztu barik indar metaketa horri euskararen sektore pribatuak egin diezaiokeen ekarpena. Horrela jokatu izan denean emaitzak begi-bistakoak izan dira, 1 + 1 eginez gero, bi baino gehiago dela sinetsita baikaude.

## 1.2. Baldintzon uztarketak ekarritako alde onak

Lehen aipaturiko lau baldintza nagusien uztarketak alde onak ekarri ditu, honako hauek, besteak beste:

- EAEn nahiz Bilbon, **guraso gehienek gogoa** izan da euren **seme-alabek euskaraz ikas dezaten**, eta neurri koherentea da lehen agertu dugun “euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera” ideiarekin. Guraso gehienek, ama-hizkuntza euskara ez den beste hizkuntza bat izanda ere, erabaki dute euren seme-alabek euskara-gaitasuna eskolaren bitartez eskuratzea eta horrela adierazten dute urteak joan urteak etorri matrikulazio datuek hezkuntzako eredu euskaldunetan.
- Azken hogeita hamar urte hauetan **Bilbok milaka euskaradun irabazi ditu**. Gaur egun euskaldun peto-petoen kopurua (78.727 pertsona) hiru aldiz handiagoa da 1981ean (23.979) baino, ia euskaldunen<sup>1</sup> multzoa (96.774 pertsona) ere asko hazi da duela hiru hamarkadako datuarekin alderatuta (58.408 pertsona). Bi multzoak batuko bagenitu, 175.501 laguneko masa kritikoa<sup>2</sup> osatzen dutela ikusiko genuke, bilbotarron % 51,26, hain zuzen ere. Horiek horrela, hogeita hamar urte atzera eginez gero, euskaldunak 1981ean %6 tik %23ra 2011n eta ia euskaldunak %15etik %28ra pasatu direla jabetuko gara; deigarria da euskaldunen erakarmen indarra, %23 izanik beste %28 euskararen gurdira erakartzea lortzen baitute.  
Kopuru horiek ikusita, agerian geratzen da eskolak eduki duen eragina, aurreko paragrafoan adierazi dugun bezala; izan ere, eskola ez da agente bakarra izan Bilbon euskaldun eta ia euskaldun multzoei eragin diena; bigarren eragile gisa euskaltegiak gauzatu duten lana azpimarratu behar dugu. Bilbon sortu ziren euskaltegiak, baita “euskaltegi” terminoa<sup>3</sup> ere, eta euskarak Bizkaiko hiriburuan izan duen bilakaera positiboa ulertzeko ezinbesteko faktoretzat dugu. Gaur egun Bilboko euskaltegi sarean 150.000 ikastordu baino gehiago ematen dira urtean.
- Eskola eta euskaltegiak aipatuta, biztanleen piramidea irauli egin dela irudikatzea berez datorkigu burura; horrela, bada, **belaunaldirik gazteenetan euskaraz dakitenak gehiago dira ez dakitenak baino**, adin-tarte zaharrenetan gertatzen denaren kontrakoa. Horrez gain, etorkizuna zelan datorren jabetzeko esan behar dugu 19

---

<sup>1</sup> Ia euskaldunak dira ulertu bai baina neurri batean hitz egiten dutenak; era berean komeni da argitzea txosten honetan sarri aipatuko direla Eustat eta V. Inkesta Soziolinguistikoa datu-iturri gisa. Eustaten “euskaldunak” eta “Ia euskaldunak” terminoak erabiltzen dira, baina Inkestan sinonimo moduan, aldiz, “euskaldunak” eta “elebidun hartzaileak”. Guk “euskaldunak” eta “Ia euskaldunak” erabiliko ditugu txostenean zehar.

<sup>2</sup> Masa kritiko handi hau aipatu nahi izan dugu Bilbok hainbat esparrutan duen potentzialtasuna azpimarratzeko, izan ere, datu hau ez zaigu baliagarri egiten erabilera baloratzekoan, hor euskaldunen multzokoekin alderatu behar dira datuak.

<sup>3</sup> Aitor Zuberogoitia eta Pedro Zuberogoitia, “Bertan Bilbo” liburua, 242. Orrialdea.

urtetik beherako adin tarte guzti-guztietan<sup>4</sup> euskaraz dakitenek gehiengo zabala osatzen dutela, euskaldunak %65, ia euskaldunak %24,86 eta erdaldunak %9,24 izanik.

- **Euskaraz egiten den kultura inoiz eduki ez duen mailara ailegatu da;** arlo batzuk nabarmentzearren, euskal literaturaren ekoizpenaren bolumena eta kalitatea, bertsolaritzak lortu duen zabalkundea eta gizarteratze maila, euskarak interneten duen presentzia, itzulpengintza, ikus-entzunezkoen arloaren garapena edo kultur ekoizpena oro har. Orain dela hogeita hamar urte pentsaezina izango zen euskarak kultura munduan lortu duena aurreikusi izana.
- **Corpusaren estandarizazioan eta normalizazioan ere euskarak urrats nabarmenak** eman ditu. Beste eragile batzuen artean Bilboko plaza berrian egoitza duen Euskaltzaindiaren lana azpimarratzeko modukoa da.

Argi izpi politikak dira orain arte zerrendatutakoak, baina ez ditugu hona ekarri gure zilborrari begiratzeko edo gure buruari gorazarre egiteko, bai, ordea, hiru hamarkadako ibilbide honetan ondo egin dena eta lortu dena behar bezala gogoratzeko eta errekonozitzeko. Izan ere, euskararen biziberritze zeruan hodei grisak ere ikusten ditugu ostarteen artean; ondorengo lerroetan arituko gara zehatzago.

### 1.3. Normalizazioan betetzen ari den botila

Atal honen titulutzat botila hutsik edo betearen metafora aukeratu dugu, batzuen ustez azken hiru hamarkadetan eginikoa baloratzerakoan botila erdi beteta dago eta beste batzuek, ordea, erdi hutsik ikusten dute. Izan ere, hizkuntzaren biziberritze prozesuak oso konplexuak direnez, egokiago iruditzen zaigu betetzen ari den botilaren ideia<sup>5</sup> heltzea.

#### 1.3.1. Erabilera da giltzarria

Aurrerapauso handiak eman diren arren badago datu bat adierazten diguna zenbat falta zaigun botila betetzeko, euskararen erabilera, alegia. Bilboko bizitzaren esparru gehienetan baxu samarra da, horrelaxe adierazten digute behaketa zuzenen edo galdeketen bitartez jasotako datuek<sup>6</sup>. Gorago aipatu ditugun berme-baldintzak oso garrantzitsuak izanda ere, gai honetan, **herritarrok, bilbotarrok, gara protagonista nagusiak** eta erabilera handitzeko pertsona bakoitzak eta erakundeok zer egin lezaketzen aztertzea mereziko lukeelakoan gaude.

Era berean, Erabilera ezin dugu jorratu aldagai isolatu legez, euskararen ezagutzarekiko eta motibazioarekiko interakzioan landu beharra dago, hortaz. Hiru kontzeptu hauek koktel-ontzian sartuz gero, ontzitik ateratzen den konbinatua edateko hainbat zapore antzemango genituzke, batzuk mingotsak (“urte guzti hauetan ez dugu neurri berean aurrera egin” edo “egin duguna beste era batera egin izan bagenu” bezalako bouquetak utziko digute ahoan), beste batzuk garratzak (“arlotan batzuetan atzera egin dugu”) eta baten batzuk gozoak (“teknologia berrietan edo interneten aurreratutakoa”).

---

<sup>4</sup> Iturria: Eustat 2011

<sup>5</sup> Kike Amonarriz “Euskara 21: Batzorde Atal bereziko kideen Ekarpinak” txostena, 20. orrialdea

<sup>6</sup> Batez ere Eustat, V. Inkesta Soziolinguistikoa edo Soziolinguistika Klusterrak eginiko Kale Neurketa aintzat hartu ditugu.

Izan ere, badakigu jakin erabilera dela hizkuntzaren balioaren benetako neurgailua, **euskararen erabilera areagotzea eta sendotzea da guk nahi duguna** eta helburu horren kariaz ulertzen dugu esku artean dugun gogoeta hau<sup>7</sup>. Erabilera jomuga, bai, baina argi edukita euskararekiko motibazio eta sentiberatze positiboak lagunduko duela jakin baina erabiltzen ez dutenak erabiltzaile aktibo bihur daitezten; eta argi edukita ezagutzen ere aurrerapausoak eman behar ditugula, eskolan euskaldundu diren askok ahalik eta *erosio linguistikorik* txikiena paira dezaten gure Bilbo honetan behin derrigorrezko eskolaldia amaituta edo amaitu bitartean, eta euskaltegietatik euskaradun atera direnak ere euskal hiztunon komunitatera txerta daitezten.

### **1.3.2. Hezkuntza. Eskolarik gabe ezinezkoa da euskararen biziberritzea, baina eskolarekin bakarrik ezin da**

Eskolarekin euskararen normalizazioa lortuko zela uste zutenak bazeuden eta ez ziren gutxi batzuk, batez ere 80ko hamarkadan; datuek erakutsi dute eskolarik gabe ezinezkoa dela euskararen biziberritzea, datu bat, ehunekoetan<sup>8</sup>, aipatu dugu lehen Bilboko 2 eta 19 urte bitarteko haur eta gazteen euskara gaitasuna adierazteko, berori alderatuko bagenu pertsona horien ama-hizkuntzaren datuarekin<sup>9</sup> (Bilbon euskara ama-hizkuntza dutenak %3,6; euskara eta erdara dutenak %3,7; erdara dutenak %92,6), jabetuko ginatke atoa euskalduntzea eta ia euskalduntzea eskolaren bidetik etorri dela, argi eta garbi. Adinean gora egin ahala euskaltegien lana ere nabarmendu beharko genuke, jakina.

Eskolak asko egin du, eta eskolari dagokiona eskatu behar zaio, ez gehiago ez gutxiago; eman dezakeena baino gehiago eskatu izan diogula askotan uste dugu, berdindu baitugu euskara-gaitasuna eskolak berak egin zezakeen lanarekin, ahaztuta faktore ugari badirela, gaitasunean zuzenean eragiten dutenak; esate baterako, gurasoen eta familiako hizkuntza, Bilboko egoera soziolinguistikoa, ikaslearen harreman-sare natural ez formaletako hizkuntza, aisialdirako jarduerak, eta abar. Faktore hauek garrantzi handikoak dira Bilbo bezalako eremu linguistikoan.

Eskolaz kanpoko faktore horien artean badago bat berebiziko garrantzia daukana eta eskolaren lehenetsunezko "aliatua" izan litekeena, bai ezagutza (hizkuntzaren alderdi ez-formala) aberasteko eta bai, eta batez ere, erabilera sustatzeko orokorrean; **aisialdiaz** ari gara.

Egia da derrigorrezko eskolaldia amaitutakoan denek ez dutela gaitasun nahikorik lortzen euskaraz naturaltasunez jarduteko, eta adierazkortasun mailan gabeziak eta erdararekiko mendekotasun nabarmenak dituztela.

Zer dagokio, bada, eskolari? Aurreko paragrafotik tiraka, eskolak bermatu beharko luke euskararen irakaskuntza egokitasunean ardatzen duela eta ez zuzentasun hutsezkoetan edota gramatikakeriaren morrontzetan, alderdi komunikatiboa lehenetsi beharko luke

---

<sup>7</sup> Euskara XXI txostena, 33. orrialdea.

<sup>8</sup> Zenbaki absolutuetan honako kopuruak dira: euskaldunak %65,87 (33.152 lagun), ia euskaldunak %24,87 (12.516 lagun) eta erdaldunak %9,26 (4.661 lagun). Iturria: Eustat

<sup>9</sup> V. Inkesta Soziolinguistikoko datuak dira, Bilboko adin-tarte guztiei buruzkoa, izan ere, 2 eta 19 urte bitartekoen ama-hizkuntza aztertuz gero, euskara eta euskara eta erdara ama-hizkuntzat dutenen proportzioa handiagoa litzatekeela esan behar dugu, joera hori errepikatu egiten delako herrialde eta hiriburu guztietan. Hori esanda ere, eskolaren eragin erabatekoa ukazina da, datuon ñabarduretatik haratago.



ahozkotasunaren lanketa azpimarratuz. Horraino euskararen gaitasunarekin zamatu dezakegun eskolaren motxila. Gainerako faktoreak eskolatik haratagokoak dira eta dagozkien esparruetan jorratzekoak, beraz.

Bestalde, egia da eta kezagarria gainera, derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondorengo goi-mailetan –batxilergoan baina, bereziki eta nabarmen, Lanbide Heziketan-, hutsune handia dagoela oraindik ere euskarazko irakaskuntza-eskaintzan<sup>10</sup>.

### **1.3.3. Ezagutza eta erabileraren hazkunderen arteko diferentzia ulertzeko hainbat arrazoi**

Bilbon euskaldun kopurua ia laukoiztu egin da azken hamarkadetan, oso kopuru baxutik abiatzen baginen ere, ez da ahaztu behar Bilbon bizi diren euskaldunak eta ia euskaldunak batuz gero, Donostian bizi diren biztanle guztiak bestekoak direla konturatuko gara. Munduan euskaldun eta ia euskaldun gehien batzen duen hirigunea da Bilbo. Izan ere, bost urterik behin egiten diren neurketek<sup>11</sup> beste errealitate bat erakusten digute, erabilera baxu eta geldoarena. Ezagutza eta erabileraren artean dagoen distantzia handi hori azaltzeko arrazoi nagusi bi aurkitzen ditugu, besteak beste: alde batetik, hiztunen gaitasun erlatiboa eta, bestetik, hiztunaren hurbileko dentsitate demolingüistikoa.

Lehen esan bezala, Bilbon elebidunen artean asko eta asko gazteak dira, gehienak, gainera, ama-hizkuntza euskara izan ez dutenak; horiek horrela, eskolaren eragina apaldu egiten da eskolatik haratagoko gainerako faktoreen horien artean eta, ondorioz, askok gaitasun maila nahikorik ez dute lortzen eskolaldian; beraz, naturalago egiten zaie gaztelaniaz jardutea. Horrez gain, Bilboko euskaldunak kopuruz asko izanda ere, trinkotzea falta zaie eguneroko bizitzan euskaraz naturaltasunez jarduteko aukerak izan ditzaten.

Bilbon 2011ko neurketako datuei begiratuz gero, ikusiko dugu euskararen erabilera baxua dela kontuan hartuta ezagutza maila eta, aldiz, euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntzen erabilera ez dela horren baxua, hiztun kopuru absolutuari erreparatzen badiogu. Beste hizkuntzen datuari arretaz erreparatzen badiogu, eta azpian egon litezkeen arrazoiak interpretatuz gero, ondorioztatu genezake kopuruz eta ehuneko<sup>12</sup> euskaldunak baino askoz gutxiago izan arren, askoz trinkoago bizi omen direla eta, beraz, euren hizkuntza erabiltzeko aukera handiagoa dutela, gertu eta batu egoteak ahalbidetu egiten baitu hizkuntzaren erabilerari eustea. *Trinkotzearen* ideia esportagarri ez ezik ezinbestekoa ere bada Bilboko euskal hiztunen multzoarentzat<sup>13</sup>, ze euskal hiztunok ez dugu bide bazterrekoak izan nahi, nahi duguna da euskara erabiltzeko aukera errealak izatea Euskararen Legean aitortzen den bezalaxe. “Euskal Herriko herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz”<sup>14</sup>.

---

<sup>10</sup> Euskara XXI txostena, 36. orrialdea.

<sup>11</sup> V. Inkesta Soziolingüistikoa, Eustat edota Soziolingüistika Klusterraren Kale Neurketa aztertu ditugu.

<sup>12</sup> Eustateko 2011ko datuen arabera Bilbon bizi diren biztanleen artean %1,3 Europar Batasunean jaiotakoak dira eta %7,7 beste herrialde batzuetan.

<sup>13</sup> Euskaldunek eta ia euskaldunek osatutako multzoaz ari gara.

<sup>14</sup> 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrikoa; Lehen Titulua, Kapitulu Bakarra, 5. Artikulua.

Eta hizkuntza bizia eta kementsua (eta ondo) erabiltzen dena denez, Bilbon euskarak eta Bilboko euskal hiztunok behar dute hizkuntza politika birpentsatzea eragile guztien artean. Errealitate gordin honi erantzun nahi dio oinarrizko txosten honen asmoak.

#### **1.3.4. Euskararen auzia ez da euskal hiztunen “kezka” bakarrik, “herritarren bizikidetasunaren auzietako bat da”**

Gaitasunean emandako aurrerapausoak seinatu ditugu gorago, baita euskal hiztunok behar ditugun eremuak eta aukerak ere, baina aurrera egin aurretik uste dugu ideia batean merezi duela geldialditxo bat egitea eta apur bat sakontzea. Euskara euskal herritar guztiena da, euskal hiztunena, baita euskaratik urrun bizi direnena ere; horrexegatik beragatik euskararen auzia ez da euskal hiztunen “kezka” bakarrik, are gutxiago ideologia jakin batekoena, ez da eta ez litzateke izan beharko. “Euskaratik aldentuta bizi direnek jakin behar dute guztiena den ondare horren etorkizuna guztiek -eta gero eta gehiago- egiten duten neurrian baino ez dela bermatuko. Jakin behar dute, bi hizkuntza ofizial dituen gizarte honetan, zenbat eta berdinkideago izan biak, orduan eta sendoagoa izango dela hizkuntza bien arteko bizikidetzeta, eta ondorioz, herritarren artekoa”<sup>15</sup>.

Euskara XXI Oinarrizko Txostenean aipatzen den moduan herritarrek dira hizkuntza-eskubideen jabe eta herri-aginteei dagokie hizkuntza-eskubideak zaintzea ez ezik herritarrek balia ditzaten neurriak hartzea, kasu askotan –eta ezinbestez-, aldaketa guztietan gertatzen den moduan, hainbat deserosotasun eragin ditzaketen neurriak, baina beti ere neurri horien zuzentasuna, egokitasuna, proportzionaltasuna eta eraginkortasuna bermatu behar dituzte.

#### **1.3.5. Administrazioan badago egiteko oraindik**

Bilboko Udalean, lehenago adierazi dugun moduan, urratsak ibili ditugu euskara administrazioa hizkuntza izan dadin, hala ere, zer hobetu badago arlo honetan. Lehenengo eta bat argitu behar dugu helburua (herritar euskaldunek Udalarekin dituzten harremanak eta zereginak euskaraz guztiz modu normalizatuan burutzea) behar bezala betetzea ez dela Euskara Sailekoen betekizuna, baizik eta Udal osoarena; hots, **herritarren eskubideak errespetatzea eta errespetaraztea korporazio osoaren zeregina** da. Bilboko egoeraz ari gara txosten honetan baina esan genezake hainbat administrazio txikiagoetan eta handiagoetan ere gauza bera gertatzen dela.

Administrazioak, gure kasuan Udalak, langileen postuei hizkuntza eskakizunak ezarri dizkie, halako lanpostu horretan lan egin nahi duenak hizkuntzaren ezagutza izan dezan, euskal hiztunen eskubideak hobeto bermatuko direlakoan horrela. Politika horrek desadostasunak sortu ditu zenbaitetan, batez ere herritarren hizkuntza-eskubidearen babesak bidean erdi erdi duenean langileak lehendik irabazia zuen lan eskubidea. Egia da, gero, praktikan, salbuespen asko egin direla, adina dela eta, lanpostu mota dela eta, eta abar. Ildo beretik jarraituta, egia da, nahiz jendea honetaz konturatzen ez den, inork ere ez duela bere lanpostua galdu arrazoi horrengatik. Besterik da, eta hori ere hala gertatu da, lanpostua bereganatzeko lehian aurrea hartu diola batzuetan euskaraz mintzatzeko gai dela frogatu izan duenak. Baina ez da batere

---

<sup>15</sup> Euskara XXI, 39. orrialdea.

egokiak gauzak nahasi eta denak zaku berean sartzea, *totum revolutum* bat eginez. Arazoak non dauden, hori da azpimarratu behar dena<sup>16</sup>.

Bigarrenik, nabarmendu beharra dago euskara-gaitasuna lortzea lar lerrokatu dela egiaztagiriak edo hizkuntza perfila lortze hutsarekin eta gutxiegi lanean modu praktikoan eta naturalean erabiltzearekin. Horrela jokatu izanak ekarri du zenbait kasutan langileak euskal mundutik uxatzea. Hori dela eta, saihestu beharko lirateke horrelako egoerak, lanpostuetan euskara erabiltzeko aukerak eta beharrak lehenetsiz euskara-gaitasunaren eskaera definitzerakoan. Hau da, hiztunaren gaitasun komunikatiboa hobetsi beharko litzateke ezagutza teorikoaren aurretik.

### 1.3.6. Ezagutzan eginiko ahaleginari etekin gutxi

Ezagutzari buruzko aurrerakadak gorago azpimarratu ditugu, erdaldun elebazarren multzotik euskaldun edo ia euskaldunen multzora milaka bilbotarrek egin dute jauzi azken urteotan; izan ere, horietariko batzuek, guraso adinera ailegatuta, ez diote euskararen erabilerari eutsi. Ezagutza transmititu behar denean, kasu asko ditugu oraindik ere adibide modura, non umeen lehenengo urteotan euskara irakatsi bai baina koxkortu ahala baztertu egiten den edo, haurrak eskolara bidalita, eskolako hormen artean uzten duten euskararekiko kontaktu apur eta bakarra. **Euskararen erabilera bizia hedatzeko** seme-alabek euskaraz ikastea ez ezik **etxean erabiltzea ere desiragarriena** da. Baldintza bi horiek betetzeak norabide egokian jartzen gaitu erabileraren bizitasunari dagokionez, izan ere, badaude **bestelako faktoreak** lagunduko digutenak eskola eta etxeko erabileraren eragina osatzen, edo etxeko faktorerik ez dagoenetan hutsunea betetzen; esate baterako, **aisialdiko jarduerak** euskaraz garatzea.

Bestalde, erabilera apala dela eta, beste gertaera bat ere orriotara ekarri behar dugula uste dugu, hezkuntza formalean euskalduntutako askok eskolako murrueetatik haratago erabili ez dutenez, herdoilduta geratu egin zaie orduan ikasitakoa, euren buruekiko pertzepzioa aldatzera helduta, euskaldunon multzotik ia euskaldunen multzora salto eginez<sup>17</sup>, horrek dakarren guztiarekin. Behin euskara erabiltzeko gaitasuna lortuta, erabiltzeko aukerak edota borondatea faltan, kamustu egin da erabilera, eta erabilera eskasetik gaitasuna erosi zutera ailegatu garelarik.

### 1.3.7. Elebitasunaren, eleaniztasunaren, alde modu praktikoan

Bilbon, EAEn, hizkuntza ofizial bi daude eta elebitasunaren aldeko mezua oso hedatuta dago gizartean; ideia honetan sakonduta, ñabardura bi egin beharrean gaude: elebitasunaz ari garenean euskara eta gaztelania maila berdintsuan egoteko hartu beharreko neurriez ari gara, ahaztu barik Bilbon ehun hizkuntza baino gehiago hitz egiten direla eta, eta berez horrek Bilbo elebiduna baino eleanitza dela diosku.

Bigarrenik, elebitasunaren alde agertzeko modu, erritmo, borondate eta estrategia desberdinak daude, txosten honen asmo xumea denon artean adostasunez horixe lortzea da,

---

<sup>16</sup> Euskara XXI, 40. orrialdea.

<sup>17</sup> Norberak non ikusten duen bere burua azalduko luke 2006-2011 tartean egon zen ustezko atzerakada euskaldunon ehunekoetan. 2006an euren burua euskalduntzat eduki zuten batzuek 2011n ia euskaldunen multzoan ikusi zuten.

baina era berean aitortu behar da **elebitasuna** (eleaniztasuna nahi bada) **ezin dela eskuratu elebakartasunetik**, beraz, euskaratik urrunen daudenei ahalegin handixeagoa egitea dagokie bi hizkuntza ofizialei beharrezko duten hauspoa emateko; izan ere, gertu bizi garenok ere badaukagu zeregina bide hori ibil dezaten ziurtatzeko; esate baterako, aktiboago jokatzear gain normalizazioaren aldeko nukleotan gaudenok “euskaragatik erdaraz” bezalako estrategiak ere erabiltzen hasi beharko ginateteke, “euskaratik eta euskaraz” lakoek lehentasuna izaten jarraitu beharko duten arren.

Bilboko bi hizkuntza ofizialak ondo jakingo dituzten herritarrez osaturiko eta herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuko dituen gizarte eleanitza erdiestea (eta euskararen normalizazioa lortzea) abiapuntutzat hartzen badugu, adostasuna eta bizikidetzaren berma dezaketen estrategiak diseinatu daitezke; honakoak, besteak beste: jendartearen borondatearen arabekoak, Bilboko errealitate desberdinak aintzakotzat hartuz, etorkinen errealitate anitza onartuz eta integratuz, ingelesaren hedadura eta garrantzi sozialari erantzuna emanez eta gaztelaniaren nagusitasun demografiko-ekonomikoari aurre eginez.

Bestalde, atal honetan bizikidetzaz ari garela, komeni da argitzea herritarren arteko bizikidetzaren faktore askoren uztarketak (sozialak, ekonomikoak, politikoak...) eragiten duela eta faktore *soziolinguistikoa* konbinazio horretan kokatu behar dela; hau diogu ez jartzeko gizarte osoaren bizikidetzaren, zentzu orokor eta zabalean, hizkuntzen arteko harremanen kudeaketaren pentzura.

### **1.3.8. Lidergoa euskararen alde ezinbestekoa da**

Euskarak euskal gizartean duen pisua oso txikia da, Bilbon are txikiagoa. Sarri gizarte mailako pertsona erreferentzialen agerraldiak gaztelaniari lotuta agertu izaten ohi dira, euskararen gaineko pertzepzioa ahulduz eta “euskara bigarren mailako kontuetarako edo eskolarako baino ez dela” ideia betiketuz. Kirola, Ekonomia edo Kulturako jendea euskarara hurbildu eta euskaraz agertzea lortzea garrantzitsutzat jotzen badugu ere, aztertu beharko genuke arduradun politikook lider moduan jokatzeko zertan lagundu genezakeen, sozialki euskarak bestelako indarra eta pisua har dezan.

### **1.3.9. Euskarazko kulturaren industrian galdutako lekua**

Aurreko paragrafoan euskarak Bilbon duen “pisu txikia” aipatu dugu, neurri batean ideia hori gaur egun lotuta egon liteke honako ideiarekin: “Bilbo ez dago euskarazko produkzioaren epizentroan”. Egia da gaur egun euskararen kultur industria gehiena Donostialdean kontzentratzen dena, oso eremu txikian garatu egiten da ekoizpenaren parte handi bat; horrek ekartzen du behar bezalako aniztasunik eta dibertsitatez ez izatea produktuetan, hori dela eta, zenbaiten partetik urruntasuna sumatu izan dela uste dugu; halaxe gertatzen zaio bilbotar euskaldun zenbaiti, gure uste apalean. Distantzia hori laburtzen has gitezke Bilbotik bertatik, euskarazko kulturaren industriadako garapen bideak jarrita. Fenomeno hau ez litzateke guztiz berria, orain dela hamarkada batzuk Bilbo bera euskal kulturaren hainbat arlotan aitzindari izan baitzen. Adibide faltan ez gaude: lehengo Euskal Katedra Bilbon sortu zen, euskarazko lehenengo aldizkariak eta hedabideak, ikastolen sorrera, euskaltegiak, Euskaltzaindia, Kafe Antzokia, euskal idazleak...

Sasoi batzuetan aitzindari izan da Bilbo baina beste sasoi batzuetan ez da gai izan hainbat arloren inguruan zeukan potentzialtasun guztia artikulatzeko, euskarazko tokian tokiko **hedabideena izan liteke adibiderik argiena**. Inon baino balizko hartzaile gehiago dute euskarazko hedabideek Bilbon, albisteak sortzeko kapazitate etengabea dauka hiriak, dela arlo ekonomikoari buruz (Burtsa...), dela gizarte arloari buruz, dela kirolari buruz, dela kulturari buruz, dela aisialdiari buruz. Horregatik beragatik eta euskaldunon eta ia euskaldunon komunitatea trinkotzeko **duen estrategikotasunagatik**, besteak beste, arlo honi arreta berezia eskaintzea merezi duelakoan gaude.

Horrez gain, Bilbok hiri moduan euskararen normalizazio lorpenean daukan erantzukizuna bete dezan ahalbidetzen joan beharko genuke, ahal den neurrian, behintzat. Euskara indartsuen dabil biztanle txikiko eta landa-eremuko guneean, aldiz, aisialdi eredu berritzaileak eta azken uneko gizarte joerei buruzkoak guneko urbano jendetsuetan garatzen dira, euskara ahulen den eremuetan, hain zuzen ere. Kapazak izan beharko genuke lan egiteko, Bilbo EAEko gunerik urbanoetan urbanoena eta handiena izanda, euskararen kulturaren industrian aitzindari eta eragile aktiboa izan dadin; helburu polita litzateke Bilbo erreferentzia izatea euskararen inguruko kontuetan, hiriak bestelako arloetan (hirigintza, zerbitzuak, diseinuan...) lortu duen antzera.

### III. DATOZEN URTEOTARAKO HELDULEKUAK

Aurreko atal eta azpi-ataletan azken hogeita hamar urteetan izandakoaz jardun dugu, diagnosi orokor batean oinarritzea gatzat jo dugu datozen urteotarako ildo estrategikoak zehazte eta adoste aldera. Oinarriak oinarri, helduleku finkoak ere beharko ditugu etorkizuneko erronkei erantzuteko, bai maila kontzeptualari dagokionez, bai abiapuntu legalari dagokionez; datozen urteotako hizkuntza-politikaren norabidea ere markatzeko beharrezko zaizkigu heldulekuok. Horra hor, nahiz eta zuzenean edo zeharka aurreko lerroetan aipatuak izan, gure ustez banan-banan nabarmentzekoak direnak.

#### 1. Printzipioak

##### 1.1. Zentraltasuna

Aurretik esan dugu Bilbon euskararen normalizazioa erdiestea ez dela Euskara Zerbitzuaren zeregina bakarrik. Bilbotar guztiok zer esan handia daukagu gai horretan, baita erantzukizun zati handi bat ere. Udalaren kasuan korporazio osoari dagokio neurriak aplikatzea, beraz, zentraltasuna beharko du euskara herri-erakundeetan. Zentraltasun horrek zeharkakotasuna ere eskatzen du, hau da, guneko orotan isla berezia eta profil zehatza izango duen hizkuntza politika bakar, orokor eta iraunkor bat<sup>18</sup>.

Bilbon euskarak zentraltasuna herri-erakundeetan ez ezik hezkuntzan eta hedabideetan ere beharko du, haur eta gazteen aisialdian eta euskararen garapenerako beharrezko ditugun kultura zirkuituetan, teknologian, unibertsiteteetan... Zehar lerroak zehar lerro, erdigunea beharko du euskarak bere bizi iraupen eta erreproduktzioarako beharrezko dituen esparruetan.

---

<sup>18</sup> "Itun berritu baterantz" txostena, 24. orrialdea

## 1.2. Oinarri demokratikoa

Edozein aldaketak inertziak astintzea ekartzen du, deserosotasunak sortuko dira batzuentzat. Era berean eskubide bat onartzen denean, eskubide horrek berak berekin dakar hura garantiaz gauzatzeko beharrezko diren neurriak, eta hauek, ia seguru denen gustukoak ez dira izango. Euskararen normalizazioa logika horren barruan mugitzen da, baina argi edukita gauzak ezin direla egin bortxaz, ezta inposizioan oinarritu ere.

Gizarte demokratiko baten ezaugarrietako bat, egoerarik ahulenean dauden herritarrak laguntzea da, eta gure kasuan, euskara eta euskal hiztunak dira hizkuntza politikak lehenetsunez babestu beharrekoak. Hortaz, herritarrek euskara gizarte esparru guztietan normaltasunez erabiltzeko aukera izan dezaten ahulenaren aldeko jokabidea garatzea dagokigu herri aginteoi. Horrez gain, hizkuntza politikak ezagutza bermatu behar dio ezagutzen ez duenari eta gizartearen kohesio-bilatzailea izan behar da. Ildo horretatik lau helburu bete beharko lirateke:

- Euskal hiztunak ezin du hizkuntza-gutxiengo baten trataera izan EAEn.
- Erdal mundua euskal munduari bizkar emanda biziitzea oztopena da elkarbizitzarentzat.
- Bi munduen elkar ezagutza sustatu behar da.
- Integrazioa bilatu behar da, ez asimilazioa, beste lurraldeetatik datozenekin.

## 1.3. Progresibotasuna

Hizkuntza-eskubideak aitortzea da abiapuntua, izan ere, aitortzeaz gain beroriek gauzatze praktikoa izan dezaten diseinatu behar da hizkuntza politika; horretarako, alde batetik, ikerketa sozio eta psikolinguistikoak kontuan hartu behar dira, besteak beste, eta bestetik, plangintzak zein esparrutan garatuko diren ere jakin behar dugu. Horrez gain, jakitun egon behar dugu egun batetik bestera ez dela lortuko, beraz, ezinbesteko zaigula Bilboren errealitate soziolinguistiko konplexua aintzat hartzea, lehenetsunak ezartzea, lehenetsunen araberrako abiadurak eta erritmoak zehaztea eta, azkenik, ekintzak baliabidez hornitzea eta gauzatzea. Hizkuntza eskubideen eragingarritasunak progresiboa izan behar du; progresiboak, ordea, ez du esan nahi mugagabe geroragarria<sup>19</sup>. Era berean, argi daukagu eskubideen izenean edozer ez dela onargarri eta zenbait kasutan malgutasunez ere jokatu beharko dugu, horixe izan behar baita, hain zuzen, hizkuntza politikaren ezaugarrietariko bat.

## 1.4. Ez-neutraltasuna. Euskararen normalizazioa du helburu

Bi hizkuntza ofizial ditugun heinean, egungo legeak euskara normalizatzea eta elebitasuna erdiestea du jomuga.

Elebitasuna du helburu egungo legeak eta elebitasun simetrikoaren eskenatoki teorikora heltzeko politikak garatu ditu, elebitasun orekatua eta aukera-berdintzailea benetan posible balitz bezala jarduteko hautua egin duelarik. Ukaezina da aukera honetatik ibiliz gero euskarak baduela zer irabazirik.

---

<sup>19</sup> "Euskara XXI", 31. orrialdea

Bestalde, herritarrek euskara gizarte esparru guztietan normaltasunez erabiltzeko aukera izan dezaten ahulenaren aldeko jokabidea garatu behar dute herri-aginteek, horixe da herri aginteon betebeharra. Gizarte demokratiko baten ezaugarrietako bat da egoerarik ahulenean dauden herritarrak laguntzea, gure kasuan, euskara eta euskal hiztunak.

Hizkuntza batek, garatuko bada, bera nagusia den esparruak behar ditu, arnaguneak hain zuzen ere. Arnagune geografikoak eta funtzionalak behar ditu euskarak, bere garapenerako ezinbesteko diren espazioak betez, dela belaunaldi arteko transmisioan, dela hizkuntzaren funtzio komunikatiboetan zein hizkuntzaren balio erreferentzialetan ere. Hizkuntzen banaketa funtzionala dugu abiapuntu gisa, baina euskarari gero eta funtzio gehiagotara ireki beharko zaio bidea.

### **1.5. Elebitasuna, eleaniztasuna**

Lehen esan bezala, Bilbon hizkuntza ofizial bi daude, bi horiek garatzeko aukera, espazio eta funtzioak bermatu behar ditu hizkuntza politikak, gizarteak, gainera, helburu hori lortzeko adostasun zabala agertu du behin baino gehiagotan<sup>20</sup>, izan ere, gaur egungo errealitatean txertatu behar da asmo hori. Bilbo, “de facto” hiri eleanitza da, dagoeneko ehun hizkuntza baino gehiago entzun ditzakegu Bilboko kaleetan, ingelesa ere lehen baino intentsitate handiagoz irakasten da hezkuntza zentroetan. Hortaz, hizkuntza politikak ezaugarri horiek aintzat hartu beharko ditu arrakastatsu izateko; adibidez, etorri berriei euskararen berri ematea, hizkuntza harrera egokiak eskaintzea eta euskara ikasteko aukerak behar beste erraztea eta laguntzea gure politikatan oso kontuan hartzeko ildoak izan beharko lirateke.

### **1.6. Prestigioa**

Zentraltasuna behar du euskarak, gizarte bizitzaren arlo guztietan naturaltasunez eta normaltasunez jarduteko aukera eduki behar du euskal hiztunak, gizartearen erreferenteak euskararen gurdira igotzea beharrezko ikusten dugu, arduradun politikoen lidergoa ere aipagai izan ditugu aurreko ataletan.

Atzera begiratuak ere prestigioa eman diezaioke euskarari, gure hizkuntzaren historia sozialak mundu mailako interesa baitauka eta testuinguru horretan Bilbok ere merezimendu ugariak baititu ikerketa eta dibulgaziorako bide berriak abian jar daitezten. Bilbotarren irudi kolektiboak euskaldunago izateko helduleku garrantzitsuak ditu eta memoria historikoa berreskuratzeak gure erreferentzi kulturalak osatzen joan daitezten lagunduko liguke.

Horiekin guztiekin euskarak errekonozimendu soziala irabaziko luke, euskararekiko pertzepzio positiboa handitu egingo luke eta hori prestigioarekin lotuta dago.

Bestalde, Bilbok ere euskararekiko erantzukizuna dauka, azken urteotan hiriak berak bizi izan duen bilakaerak errekonozimendu handia lortu du; Bilbok berak prestigioa irabazi du etxean nahiz nazioartean, hainbat arlotan erreferentzia bihurtu da. Euskarak prestigioa du mundu zabalean. Bere iraganaren misterioak eta gaur hain bizirik egoteak jakin-mina pizten dute

---

<sup>20</sup> Hainbat urteotan Inkesta Soziolinguistikoetan agertutako emaitza euskararen erabilera susatatzeari buruz.

nonahi. Alde horretatik, Bilbo euskaldun agertzeak areagotu egingo luke bere nortasuna, are erakargarriago bihurtuko hiria atzerritarrentzat. Nazioarteko fokuak Bilbori begira dauden honetan euskara Bilboren berezko errealitatea dela harrotasunez adieraztea emango lioke gure hizkuntzari prestigio handiagoa.

## 2. Abiapuntu legala

Aurreko atalean hizkuntza-politikak eduki beharko lituzkeen heldulekuak edo printzipio nagusiak bildu ditugu, oinarri-oinarrizkoak, baina aldi berean egungo lege markoan babesaren dutenak, baita Europaren babespean egon daudenak ere.

### 2.1. Egungo lege-markoaren deskribapena

Azter dezagun bada, faktore arautzailearen markoa.

*“Euskadiko hizkuntza politikaren marko legalak:*

- Konstituzioan du abiapuntua
- Autonomia Estatutuan du oinarria.
- Euskararen Legean du bizkarrezurra.
- Legearen garapenean lortutako kontsentsua du bermea.”<sup>21</sup>

- **Europatik udalerrira (Eurocarta)**

Orain arte aztertutako lau zutabeko marko legalak homologatzeko badauka aukerarik Europan eta baita tokian tokira egokitze aukerarik ere udal mailan.

Jar gaitezen Bilbotik Europara bidean.

Konstituzioa Europako Gutunean

*“Europako Gutunaren 1. artikulua araberako euskara erregio-hizkuntza edo eremu urriko hizkuntza moduan ulertuta, Espainiako 1978ko abenduaren 27ko Konstituzioaren 3. artikuluan ezarri da Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango direla haiei dagozkien autonomia-erkidegoetan, beraietako estatutuekin bat etorritik, eta Espainiako hizkuntza-moten aberastasuna kultur ondarea dela eta ondore horrek begirune eta babes berezia izango duela.”<sup>22</sup>*

Espainiar Estatuak Eurocarta sinatu zuen bertako araudia betetzeko konpromisoa du eta baita bertako proposamenak aurrera eramateko betebeharra ere.

Eurocartaren testuinguruan interes handiko txostena onartu du berriki Europako Parlamentuko Kultura eta Hezkuntza Batzordeak. François Alfonsik 2013ko ekainaren 26an aurkeztutako txostena aho batez onartu zuen aipatu batzordeak bertan jasotzen ziren 37 proposamenak babestuz. Horietako ale batzuk ekarri ditugu hona interesekoak izan daitezkeelakoan. Guztiak banan-banan aztertzea ez litzateke alferrikako ariketa,

---

<sup>21</sup> “Euskara XXI” Oinarrizko txostena. 26. Orrialdea.

<sup>22</sup> EREMU URRIKO HIZKUNTZAK EUROPAR BATASUNEAN: IKUSPEGI JURIDIKOA HEGO EUSKAL HERRITIK  
Santiago Larrazabal, Herri-Administrazioa



gomendagarria da, beraz, edozein hizkuntza politikaren lanketarako oinarri gisa. Horra txostenean onartutako lau proposamen adibide gisa:

*“1. Pide a la Unión Europea y a los Estados miembros que presten mayor atención a la gravísima amenaza que pesa sobre numerosas lenguas de Europa clasificadas como lenguas amenazadas de desaparición y que se comprometan con empeño con la protección y el fomento de la diversidad única del patrimonio lingüístico y cultural de la Unión aplicando políticas proactivas ambiciosas de revitalización de las lenguas afectadas y destinando a este objetivo un presupuesto razonable; recomienda que estas políticas aspiren también a desarrollar una mayor concienciación entre los ciudadanos de la UE de la riqueza lingüística y cultural que dichas comunidades representan; insta a los Estados miembros a que presenten planes de acción para la promoción de las lenguas amenazadas de desaparición basados en el intercambio de buenas prácticas ya disponibles en algunas comunidades lingüísticas de Europa;”<sup>23</sup>*

*“7. Llama la atención de los Gobiernos y las autoridades regionales de los Estados miembros sobre el hecho de que la supervivencia de una lengua amenazada de desaparición equivale a la supervivencia y el desarrollo de la comunidad que la utiliza y que, por consiguiente, para formular políticas destinadas a protegerla, deberían tenerse en cuenta no solo los aspectos culturales y educativos, sino también las dimensiones económicas y sociales;”<sup>24</sup>*

*“10. Considera que la Unión Europea debe apoyar a los Estados miembros y animarlos a que apliquen una política lingüística que permita la adquisición desde la más temprana infancia como lengua materna de la lengua amenazada de desaparición; señala que, como se ha demostrado científicamente, una política de promoción de dos o más lenguas beneficiaría a los niños y les ayudaría a aprender otras lenguas más adelante, además de fomentar la transmisión intergeneracional de las lenguas, y prestaría a los hablantes de lenguas amenazadas de desaparición un apoyo concreto para revitalizar la transmisión intergeneracional en las zonas en las que haya disminuido;”<sup>25</sup>*

*“13. Considera que una política de revitalización lingüística es un esfuerzo de largo aliento que debe apoyarse en la planificación coordinada y variada de actividades en diversos ámbitos, en particular la educación (con la educación preescolar y primaria como principal activo, junto con la formación de los padres en la propia lengua), en la administración, en programas para los medios de comunicación (con la posibilidad de crear y desarrollar emisoras de radio y televisión), en las artes y en todas las formas de la vida pública, lo que implica la necesidad de recursos disponibles a largo plazo; considera que merecen apoyo la elaboración de estos programas, los intercambios de buenas prácticas entre comunidades lingüísticas y el establecimiento de procedimientos de evaluación;”<sup>26</sup>*

Europa dugu erreferente izaera anitzeko politika nagusietan, dela ekonomian, dela arlo sozialean, teknologikoan, halaxe beharko luke hizkuntza politikan ere.

Eremu Urriko Hizkuntzen 1992 Europako Gutunean du erreferentzia zabal eta homologatuena euskarak.

## **2.2. Marko legalaren oinarriak**

---

<sup>23</sup> Informe sobre las lenguas europeas amenazadas de desaparición y la diversidad lingüística en la Unión Europea. François Alfonsi. 2013/06/26. 7. orrialdea.

<sup>24</sup> *Ibidem*. 8. orrialdea.

<sup>25</sup> *Ibidem*. 8. orrialdea.

<sup>26</sup> Informe sobre las lenguas europeas amenazadas de desaparición y la diversidad lingüística en la Unión Europea. François Alfonsi. 2013/06/26. 9. orrialdea.

Ikusi dugu EAEn zein den euskararen marko legala, funtsean lege-marko horrek hiru oinarri nagusi ditu: eskubide linguistikoen aitorpena, progresibotasuna eta ez-neutraltasuna. Printzipioen atalean batzuk jasota daude, hona ekarri ditugu nabarmentzekoak direlako, baina ez errepikatzearren laburpen gisa aipatuko ditugu soilik.

### **2.2.1. Eskubide linguistikoen aitorpena**

#### **i. Euskara Euskal Herriko hizkuntza propioa da**

**Euskara Euskal Herriko hizkuntza propioa** dela dio Autonomia Estatutuaren 6. Artikuluak. Bistan da, euskara ez dela Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza bakarra, bai, ordea, Euskal Herrian beste inon mintzatzen ez den hizkuntza bakarra. Euskara ez da hizkuntza propioa gure hizkuntza bakarra delako, gurea ez beste inorena delako baizik, gurea baino ez, gurea bakarrik. Hizkuntza Ekologiaren printzipioen arabera euskarak lur hau du garapen leku bakartzat eta gurea da, beraz, euskarak garapen bidea izan dezan ardura nagusia. Euskara ondare unibertsala den heinean, gizateriari zor diogu euskararen zaintza.

Euskara, bestalde, **euskal gizartearen kultura ondarearen osagai funtsezkoa** da, euskal herritar guztiona, euskaraz jakin ala ez.

#### **ii. Euskara ofiziala da EAEn, gaztelania bezala**

Euskara ofiziala da EAEn, gaztelaniarekin batera. Herritar guztiek dute euskara eta gaztelania jakiteko eta erabiltzeko eskubidea eta herri-erakundeei dagokie eskubide hori bermatzea. Herritar guztiek dituzte hizkuntza-eskubideak, eta beraz, guztiek dituzte eskubide berdinak.

#### **iii. Herritar guztiek euskara eta gaztelania jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, eta herri-erakundeei dagokie eskubide hori bermatzea**

Norbanakoaren askatasunak baditu mugak, norberaren betebeharre lotutakoak, alde batetik, eta parekoen eskubideek ezartzen dizkietenak, bestetik. Norbanakoen eremu askean, eremu informalean, hizkuntza askatasuna ezinbestean errespetatu beharreko hautua izango da. Eremu formalean berriz, lan munduan, administrazioan eta bestelako erakundeetan arauak mugatuko du norbanakoaren askatasuna. Herri-administrazioak izan behar du herritarren hizkuntza eskubideen zaintzan eredu.

*“Konstituzio Auzitegiak babestutako jokabidea da, jakina denez, EAeko Administrazio publikoetako lanpostuetan jarduteko gaztelaniarekin batera auzonomia Erkidegoko hizkuntza ofiziala den euskararen ezagutza baldintzatzat eskatu edota meritutzat baloratzea, lanpostuaren eginkizunak kontuan hartuta. Jokabide horren iturburua, hain zuzen, EAeko Administrazio publikoei egotzi beharreko erantzukizun garbi batean dago: Administrazio publikoak eredu garria izan behar du herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeari dagokionez.*

“27

### **2.2.2. Progresibotasuna**

---

<sup>27</sup> “Itun berritu baterantz” txostena, 31. orrialdea

Gizarte elebidun (areago eleaniztasun) lortzeko hizkuntza politika batek bere baitan daroa progresibotasunaren kontzeptua, hau da, “nolako behar eta egoera halako erritmo eta abiadura” filosofia aplikatzen duena.

Horrez gain, kontzeptu honen barruan ere herritarren eta haien ordezkarien arteko adostasun zabala kokatu behar dugu.

### **2.2.3. Ez-neutraltasuna**

Ez-neutrala izateak ez du esan nahi baten aurka egin behar denik edo mundu guztiarentzat sendabelar berdina erabiliko dugunik. Ez-neutral jokatzek esan nahi du gehien behar duenaren alde egingo dela nagusiki, gaur egungo egoera betikotzea saihestu nahi dela eta hori bete dadin euskararen normalizazioaren aldeko neurri eraginkorrak hartuko direla.